

**NON ZAUDE, BABILONIA?**

Peru Amorrortu Barrenetxea

*Vitoria/Gasteiz*

Garai bateko ororen amets  
 Orain hauts eta aurri baino ez  
 Non zaudete, Babiloniako zeru ertzok!  
 Non dira hiri builatsu horiek,  
 Zerua urratu nahi luketen  
 Ziguratak, antzinaroko ortzenbor?  
 Desertua besterik ez, hits, lehor.  
 Non zaudete, sumertar, akadiar,  
 Asiriar zaluok, beldurraren  
 Mezulari, herrien azpiratzaile  
 Hainbesteren arbaso 'ta sortzaile?  
 Zein duna berok estaltzen du  
 zuen hilobia?  
 Non, ze koba ospeletan gordetzen  
 dira zuen sekretuak?  
 Sargon, Asurnarsipal, Nabukodonosor,  
 Lehen, bigarren, hirugarren, azken,  
 Zenbakiak zer du inporta, ez  
 Badaude hemen?  
 Bata bestearen atzetik joan dira  
 Besteari segika igaro dira

Historiaren galbahe finetik.  
 Bihotza estutzen dit.  
 Apenas dago haien aztarrenik.  
 Nehork ez du gordetzen haien oroitzapenik.  
 Izan ziren amak, alabak, senarrak, emazteak,  
 Seme, amona, aitona, suhi, anai, lagun, bikoteak  
 Apaiz, sazerdotisa, soldadu, ezagun, maitaleak,  
 Merkatari, musikari, desertuko bide luzeen ibiltari  
 Gaur egun harean dautza zuen bizitzak,  
 Aieruak, desirak, esperantza printzak,  
 Elkarri gau epeletan xuxurlaturiko hitzak.  
 Edo, apika, ibai handiak eramanez dituzte,  
 Ur handi amaigabeetan galtzeko, Jonasekin  
 Batera baleen estomago urtsuak betetzeko  
 Arrainak ez beste inor tarteko,  
 Sekula haien berririk ez izateko.  
 Joanak dira, Asiria, zure lurretik  
 Zure alabak. Inon ez dira ageri  
 Semeak. Tigrisaren emari emeak bustitzen  
 Ditu zure endaren azken kumeak, ahul  
 Bakarti, haien lurrean arrotz, basamortu erdian  
 Hotz, nondik datozen ezjakin, nora doazen nork  
 jakin.  
 Arraza kanpotarrekoak dira zure  
 Lurra zapaltzen duten jendeak  
 Funtsean berdinak, zure askazikoen hain  
 Ezberdinak, asmakari soilek bereiziak.  
 Urrun daude, arpilaturik, Istarren atean.  
 Fanatikoek suntsitu dute zure  
 Leinu emankorraren hazia,  
 Izerdi eta odolaren poderioz hazia,

Aspaldi, ordea, zimeltzen hasia  
Haren habietako txoriek utzia.  
Ilun da zure jainkoen ortzia.  
Zu aspaldi iraungi zinen jadanik,  
Oro, guztiak, joanik. Harriak  
Idazkunak, eternitatearen promes, soilik  
Dira garai bateko lorien  
Lekuko mutu mezuz bete.  
Horiek ere ahaztuko ditugun arte.  
Zuri suertatu zitzaizun patu krudela  
Guretzat ere gordeta ote?  
Jakin nahiko nuke, hitz beste  
Ahanzturen putzuan murgilduko  
Naiz ni ere?  
Galdetzen dizut, Babilonia. Ene  
Negarrek busti dute zure desertuko harea.  
Baina ez da aldatu palmondoen bisaia barea  
Haizeak soilik ihardetsi die lanturuei.  
Isilik diraute oroitzapenez zipriztindutako  
harriek.